

X. ERANSKINA

NAFARROAKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO ZIURTAPEN PROBETAKO AZTERKETA GIDA

C2 MAILA AURRERATUA

1.–Azterketaren helburua.

C2 mailako azterketa hau zenbait probaz osaturik dago, zeinak diseinaturik baitaude izangaiek helburu komunikatibo orokorretarako hizkuntza jarduera nagusietan duten gaitasuna ebaluatzeko.

2.–Konstruktuen definizioa.

Hizkuntza eskola ofizialetako C2 mailako ziurtapen probak xede hauetarako diseinatu dira: ebaluatu beharreko hizkuntza erabiltzean ikaslea nola moldatzen den neurtzea; eta ebaluatzea ea zenbateko gaitasuna duen helburu komunikatibo orokorretarako ahozko zein idatzizko testuak ulertzeko, produzitzeko, koproduzitzeko eta prozesatzeko.

Gaitasun probak estu loturik daude arloko adituek ezarri duten komunikaziorako hizkuntza gaitasun orokorraren ereduarekin. Europako Kontseiluak eredu hori onartu du Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan eta Companion Volume argitalpenean. Komunikazioaren ikuspegian oinarriturik, eredu hori hizkuntza jarduerara bideratuta dago, hau da, hizkuntzaren erabilerara. Ulermenean, produkzioan, koprodukzioan eta prozesamenduan xede hizkuntza erabiltzeko gaitasun hori abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuan ere aipatzen da. Mailari dagokionez, probek erreferentzia izanen dituzte, arau orokor gisa, helburu orokorrak eta espezifikoak eta hizkuntza bakoitzaren gutxieneko edukiak, hizkuntza bakoitzaren curriculumean jasotakoak.

Izangaiaren gaitasun orokorraren mailari antzematen zaio ikusita nola erabiltzen dituen bere ezagutzak, trebetasunak eta baliabideak egiazko komunikazio egoerak simulatzen dituzten zereginetan. Komunikaziorako gaitasun hori erakusteko, praktikan jarri behar dira bai hizkuntza gaitasun soila eta bai gaitasun soziokulturalak, soziolinguistikoak, estrategikoak, funtzionalak eta diskurtsiboak ere.

Eredu horren arabera, probek erakutsi behar dute zenbateko gaitasuna duen izangaiek hizkuntza jarduera batzuk ongi burutzeko, egiazko komunikazio egoeretan egin behar lukeen bezala. Beraz, ebaluazioan aztertuko da zer prozesatzeko eta ekoizteko gauza den izangaia komunikazio egoeretan, eta ez soilik zer ezagutza formal dituen hizkuntzari buruz. Hizkuntzaren sistema formalak zereginetan sartzen dira, izangaiek praktikan nola erabiltzen dituen ikusi ahal izateko.

Konstruktuen orokor horretatik ondorioztatzen dira azterketa proben ezaugarri espezifikoak.

3.–Mailaren definizioa.

C2 mailak C2 gaitasun mailaren ezaugarriak izanen ditu, abuztuaren 29ko 68/2018 Foru Dekretuan dagoen definizioaren arabera (2018ko irailaren 13ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

C2 maila aurreratuko irakaskuntzen xedea da ikasleak gaitzea, inolako zailtasunik gabe eta hiztun ikasi bat bezainbateko kalitatearekin komunikatu ahal izan daitezen konplexutasun handiko egoeretan, esparru pertsonalean, publikoan, akademikoan zein profesionalean; esaterako, maila goreneko ikasketak egiteko, graduatu ondokoak eta doktoregoa barne, edo aktiboki eta aise parte hartzeko bitzita akademikoan (tutoretzak, mintegiak, nazioarteko konferentziak); proiektu konplexuetan edo maila handikoetan arlo anitzeko lantaldeak gidatzeko, edo eraginkortasunez negoziatu eta argudiatu ahal izateko goi zuzendaritzaren mailan, nazioarteko inguru profesionaletan.

Horretarako, ikasleek hizkuntza erabateko naturaltasunarekin erabili ahal izateko behar dituzten gaitasunak eskuratuko dituzte, era guztietako egoeretan parte hartu ahal izateko, esparru pertsonalean, publikoan, akademikoan zein profesionalean, baldin eta beharrezkoa badute ahozko eta idatzizko testu askotarikoak, luzeak eta konplexuak sortzea, beste batzuekin batera sortzea edo prozesatzea gai orokorren edo

espezializatuen alderdi abstraktuei eta zehatzei buruz, norberaren espezializazio eremuan nahiz hortik kanpo, erregistro eta estilo askotarikoak eta hitzen zein egituren erreperitorio joria erabiliz, barnean hartzen dituen adierazpide idiomatikoak, lagunartekoak, tokian tokikoak eta espezializatuak, eta esanahiaren ñabardura sotilak atzemateko eta adierazteko aukera emanen duena.

4.–Izangaien betebeharrak.

Azterketako ikasgelan eskatutakoan, izangaiek aurkeztu beharko dute ikastetxeko txartela, NANA, pasaportea edo haien nortasuna frogatzeko beste agiri bat, argazkia duena.

Izangaiek puntualak izanen dira, eta azterketa-gelan egonen dira deialdiaren ordutegia baino 15 minutu lehenago, deialdiko ordua azterketa egiten hasteko ordua baita.

Izangaiek bolaluma urdina edo beltza erabiliko dute azterketa egiteko. Arkatzarekin edo ezabatzen ahal den tintarekin idatzitako probak ez dira zuzenduko (irakurle optikoaren orriko erantzunak izan ezik, haiek arkatzarekin egiten ahal baitira).

Idazteko materialaz beste tresnarik ezin da eduki mahai gainean.

Telefono mugikorrek eta beste edozein aparatu elektronikoko itzali beharko dira.

Azterketaren administratzaileek betebeharrak bete daitezela begiratu behar dute, eta bete ezean jarduteko ahalmena dute.

5.–Azterketaren ezaugarri orokorrak.

5.1. Azterketaren zatiak.

Azterketak bost proba ditu. Proba bakoitzak hizkuntza jarduera bat neurtuko du: Testu idatziak ulertzea, Ahozko testuak ulertzea, Testu idatzien produkzioa eta koprodukzioa, Ahozko testuen produkzioa eta koprodukzioa, eta Bitartekotza.

PROBA		EGITURA	HAZTAPENA	GUTXIENEZ	GAI
1.	Testu idatziak ulertzea (CE)	25 item	%20	%50, 5 puntu zati bakoitzean	
2.	Ahozko testuak ulertzea (CO)	25 item	%20		
3.	Testu idatzien produkzioa eta koprodukzioa (EE)	2 zeregin	%20		
4.	Ahozko testuen produkzioa eta koprodukzioa (EO)	2 zeregin	%20		
5.	Bitartekotza (MD)	2 zeregin	%20		
GUZTIRA			%100		%65, 6,5 p.

Izangaiek proba guztiak egin ditzakete; izan ere, ezin proba gaitzetea ez da baldintza izan hurrengoak egin ahal izateko.

Azkeneko emaitza Gai edo Ez-gai izan da. Hizkuntza jarduera bakoitzaren kalifikazioa 10 puntuko eskalan oinarritzen da eta 1 eta 10 bitarteko zenbaki baten bidez adieraziko da, dezimal batekin.

Azterketa osoa gaitzetzeko eta, horrenbestez, ziurtagiria lortzeko, beharrezkoa izan da gutxienez ere 6,5 puntu lortzea batez besteko puntuazio orokorrean. Azkeneko emaitza Gai izan dadin, ezinbestekoa da hizkuntza jarduera bakoitzaren nota gutxienez ere 5 puntuko izatea. Gutxienez ere 5 puntu lortzen badira

proba batean edo gehiagotan, Gai kalifikazioa ateratzen ahalko da, baldin eta proba guztien batez besteko aritmetikoa 6,5 puntu edo gehiago bada.

Deialdi arruntean 6,5 puntuko batez besteko osora iristen ez denak, gutxienez 5eko puntuaziora iritsi ez den hizkuntza jarduera bakoitza errekuperatu behar izateaz gainera, deialdi berezian azterketa egiten ahalko du 6,5eko gutxienera iritsi ez den proba guztietan.

Izangaia bi deialdietan aurkezten den proba guztietarako, aplikatuko zaion amaierako puntuazioa bietatik onena izanen da.

Hizkuntza eskola ofizialetako irakasleei dagokie, kasuan kasuko hezkuntza administrazioak ezartzen dituen baldintzetan, C2 maila aurreratuko ziurtagiriak lortzeko probak administrazioa.

Azterketa osoa bi saiotan egingen da, idatzizko zati batekin eta ahozko beste batekin, honako taula honetako hurrenkerari jarraituz:

	PROBA	IRAUPENA	
AZTERKETA IDATZIA	Testu idatziak ulertzea (CE)	75'	4h 35'
	Ahozko testuak ulertzea (CO)	50'	
	ATSEDENALDIA 10'		
	Bitartekotza (MD) idatzia	35'	
	Testu idatziaren produkzioa eta koprodukzioa (EE)	105'	
AHOZKO AZTERKETA	Ahozko bitartekotza (MD)	15' (hirukotea)	43'
	Ahozko testuaren produkzioa eta koprodukzioa (EO)	28' (hirukotea)	

Zatiak egiteko hurrenkera eta denborak errespetatu beharko dira bai deialdi arruntean bai berezian.

Antolaketa dela eta, eskola batek edo batzuek beste egun bat paratzen ahalko dute Testu idatziaren produkzioa eta koprodukzioa eta Bitartekotza idatzia probetarako. Data hori gutxienez 15 egun lehenago jakinaraziko zaie ikasleei.

5.2. Gaiak.

Izangaiak ulertu edo sortu beharko dituen testuak gaikako arlo hauetaz arituko dira:

- Norbera identifikatzea.
- Bidaiak eta oporrak.
- Etxebizitza, etxea eta ingurua.
- Osasuna eta gorputzaren zainketa.
- Eguneroko jarduerak.
- Enpresa eta merkataritza jarduerak.
- Elikadura eta jatetxeak.
- Harreman pertsonalak eta sozialak.
- Politika eta gizarteak
- Lana eta lanbide jarduerak.
- Ondasun eta zerbitzuak.
- Hezkuntza eta prestakuntza.
- Klima eta ingurune naturala.
- Hizkuntza eta komunikazioa
- Zientzia eta teknologia.
- Denbora librea eta aisia
- Historia eta kultura.

–Zientzia eta teknologia.

–Historia eta kultura.

5.3. Kalifikazioak.

Ikasleei ziurtapen proben emaitzari buruz emanen zaien informazioak barnean hartuko ditu probaren zati bakoitzeko puntuazioa eta dagokion kalifikazio partziala, bai eta proba osoari dagokion kalifikazio orokorra ere: Gai edo Ez-Gai.

Egin ez den probaren zati bakoitzak Ez-aurkeztua kalifikazioa jasoko du. Probaren azken kalifikazioa Gai edo Ez-gai izanen da. Izangaiak zatietako ezein ere egiten ez badu, bere azken kalifikazioa orokorra Ez-aurkeztua izanen da.

6.–Azterketako bost proben ezaugarriak.

6.1. Testu idatziak ulertzeko proba (CE).

Testu idatzen ulermenaren gaitasun orokorra neurtzeko zeregin egokienez helburutzat dute izangaiaren jarduna ahalik eta gehien hurbil dadin egiazko komunikazio jardueretara: testuan dagoen informazioari edo egileen iritziei buruzko galderak erantzutea; izenburua edo goiburua jartzea askotariko testuei; testutik atera diren elementuak berriz kokatzea testuan; hitz bat igartzea testuinguruari erreparatuta.

Horrelako jarduerak, formaz berdin-berdinak ez badira ere, funtsean bat datoz hiztunek irakurtzen dituzten testuekin egin ohi duten horrekin: informazioa eta ideiak ateratzen dituzte, eta horretarako ongi ulertu behar dituzte osotasuna eta xehetasunak, eskura dituzten baliabide estrategikoak, diskurtsiboak eta linguistikoak erabiliz.

Probaren formatua: lau zeregin, 25 itemekin guztira, honela banatuak:

ATAZA	MIKROREBETASUNA	TESTU MOTA	PROZEDURA
1. ataza 6 item	Testu baten ideia nagusiak atzematea Testu baten xehetasunak atzematea	Testua (700 hitz, gehienez ere)	–6 galderetako bakoitzari ongien erantzuten diona hautatu (a, b edo c) –Galdera ireki batzuei erantzun (6 hitz, gehienez ere)
2. ataza 6 item	Iritziak atzematea, bai implizituak, baita esplizituak ere	6 testu labur, edo testu batetik hartutako 6 paragrafo (600 hitz, gehienez ere)	–6 testuak proposatutako 8 enuntziatuetako batekin lotu
3. ataza 6 item	Testuaren egitura eta/edo zatien arteko lotura atzematea	6 testu, bakoitza bi zatitan zatiturik Testu bat; horretatik 6 zati atera dira (1.100 hitz, gehienez ere)	–Testu bati dagozkion bi zatiak uztartu –Testu baten 6 hutsuneak bete, aukeran dauden zazpi zatietako bat hautaturik.
4. ataza 7 item	Testuingurua ikusita testuaren elementuak aurreratzea	300 hitz arteko testua; horretatik 7 hitz atera dira	–Testu baten zazpi hutsuneak (hitzak) bete, hitz bankurik gabe –Hutsuneak dituen testua irakurrita, hutsune bakoitzerako aukera hautatu (a, b, c)

6.2. Ahozko testuak ulertzeko proba (CO).

Ahozko ulermenaren gaitasun orokorra neurtzeko zeregin egokienek helburutzat dute izangaiaren jarduna ahalik eta gehien hurbil dadin egiazko komunikazio jardueretara: audio testuan dagoen informazioari edo hiztunek azaldutako iritziei buruzko galderak erantzutea; izenburua edo goiburua jartzea audio testu batzuei.

Horrelako jarduerak, formaz berdin-berdinak ez badira ere, funtsean bat datoz hiztunek entzuten dituzten testuekin egin ohi duten horrekin: testuotatik informazioa eta ideiak ateratzen dituzte, eta horretarako ongi ulertu behar dituzte osotasuna eta xehetasunak, eskura dituzten baliabide estrategikoak, diskurtsiboak eta linguistikoak erabiliz.

–Probaren formatua:

Lau zeregin, 25 itemekin guztira, honela banatuak:

ATAZA	MIKROTREBETASUNA	AUDIOAREN IRAUPENA	PROZEDURA
1. ataza 6 item	Idea nagusiak ulertzea Testu baten xehetasunak ulertzea Iritziak atzematea, bai inplizituak, baita esplizituak ere	Testu bat edo 3 testu labur, guztira 6 minutukoak	–Galdera edo enuntziatu bakoitzerako aukera egokia hautatu (a, b edo c)
2. ataza 6 item		Pertsona bati egindako elkarrizketa, edo argi bereizten diren bi hiztunen arteko solasaldia, 3 minutu artekoa	–Sei enuntziatu edo galderetako bakoitzerako, markatu taula batean nori dagokion, A hiztunari, B hiztunari, biei, edo bati ere ez. –Galdera edo enuntziatu bakoitzerako aukera zuzena hautatu, emandako hiruren artetik (a, b, c).
3. ataza 6 item		Testu bat, 5 minutukoa gehienez	–Galdera ireki batzuei erantzun (6 hitz gehienez) –Hutsuneak bete, gehienez ere 6 hitzekin, audioa laburbiltzen duten 6 esalditan –Esaldiaren galdera edo hutsune bakoitzerako aukera egokia hautatu (a, b edo c)
4. ataza 7 item		7 testu labur, guztira 4 minutu artekoak (behin entzunen dira)	–7 testuetako bakoitza dagokion epigrafearekin lotu, proposatutako 9 epigrafeen artetik (2 distraigarri)

6.3. Testu idatziak produzitzeko eta koproduzitzeko proba: idazmena (EE).

Izangaiak gauza izan behar du testu idatzi zehatzak bakarka zein beste norbaitekin sortzeko, euskarria zein den alde batera utzita. Testuak ongi egituratuak eta jarduketa-eremu guztietara egokituak izanen dira. Beren gaiak konplexuak izanen dira, ideia nagusiak azpimarratuko dituzte, eta ikuspuntuak zabaldu eta defendituko dituzte ideia osagarriekin, motibo eta adibide egokiekin, eta amaieran ondorio egokia emanen dute. Horretarako testu konplexuei dagozkien egitura gramatikalak, arau ortografikoak eta puntuazioa erabiliko dira zuzen eta egoki, kohesio-mekanismo konplexuen kontrola eta lexiko jori bat menderatzen dela erakutsiz, halako moldez non ironia, umorea eta zama afektiboa barne dituzten esanahiaren xehetasunak adierazten ahal baitira.

6.3.1. Probaren formatua.

	KOPRODUKZIOA	PRODUKZIOA
--	--------------	------------

Testu mota	Gutun edo mezu elektronikoa pertsonala, edo foro batean parte hartzea Gutun edo mezu elektronikoa formala, erakunde publiko edo pribatu bati zuzendua, non, adibidez, erreklamazio bat egiten den	Argudiatzeko artikulua, txostena, aurkezpen baten memoria, etab.
Helburu komunikatiboa	Testu argia, xehetasunez betea eta zehatza egitea, eta hartzailerekin harremanetan malgu eta eraginkor jokatzeko, hizkera emozionala, hitz-erdikakoa eta umorezkoa erabiliz Testu behar bezain zuzen eta formalak egitea demanda, erreklamazio eta eskaera konplexuetan, informazio zehatza emanez eta argudio sendoak baliatuz jarreraren alde edo aurka	Ikuspuntuak azaldu eta adieraztea edota argudioak ematea, ideia nagusiak azpimarratuz eta haietan sakonduz ideia osagarrien bidez, arrazoi eta adibide egokiak baliaturik, eta konklusio egoki batekin bukatzea
Hedadura	180-200 hitz	280-320 hitz
Denbora	105 minutu	
Puntuazioa	10	10

Izangaiak sortu beharreko testuak eguneroko gai orokorrei buruzkoak izan dira (C2 mailako curriculumean bilduak, abuztuaren 29ko 68/2018 Foru Dekretuan).

6.3.2. Ebaluazio irizpideak.

–Eraginkortasun komunikatiboa.

Ebaluatzen du ea izangaiak eraginkortasunez erantzuten dion komunikazio egoerari eta ongi lotzen zaion zereginari. Alegia:

- Ezarritako helburu komunikatiboa betetzen duen eta eraginkortasunez adierazten duen esan beharrekoa: ezarritako eginkizunak (informatzea, eskatzea, etab.) burutzen dituen eta nahi bezalako eragina sortzen duen hartzailerekin. Zeregina betetzeko moduari buruzko inpresio orokorra positiboa den.
- Arau sozial eta diskurtsoak errespetatzen dituen, testu motaren arabera (kontakizuna, deskribapena, argudiatzea, etab.), bai eta testu formatu egokiak ere.
- Hizkera eta erregistro egokiak erabiltzen dituen, bai eta kortesia eta adierazteko estrategiak ere, hala dagokionean.
- Zeregina betetzeko jarraibideei lotzen zaien: ezarritako luzerari eusten dion, puntu guztiak garatzen dituen gidalerroei jarraituz, eta proposatutako gaiari buruz informazio nahikoa eta eduki jakingarriak eskaintzen dituen.

–Koherentzia eta kohesioa.

Ebaluatzen du ea izangaiak gauza den testu koherentea, ulerterraza eta kohesioduna sortzeko. Alegia:

- Informazio adierazgarria eta anbiguotasunik gabea ematen duen. Testua irakurteraza den.
- Informazioa eta argudioak ongi antolatzen dituen: ideia orokorra eta ikuspuntua ongi bereizita.
- Diskurtsoaren hariari eusten dion, errepikapenak eta jauzi edo etenak saihestuz. Gai edo ikuspuntu desberdinen arteko trantsizioak baliatzen dituen.
- Ongi erabiltzen dituen paragrafoak, puntuazio zeinuak eta lokailuak. Ideiak ongi josita dauden paragrafo eta perpausen artean.

- Egokitasunez erabiltzen dituen kanpoko erreferentzia mekanismoak (espaziokoak, denborakoak) eta barnekoak (izenordainak, adberbioak, aditz denborak, komunztadura, etab.)

–Lexikoa.

Izangaiak erabilitako hizkuntza baliabideen hedadura eta konplexutasuna ebaluatzen ditu, maila kontuan hartuta. Alegia:

- Ea egitura sintaktiko eta gramatikal ugari erabiltzen dituen, askotarikoak eta konplexuak.
- Lexiko zabala, egokia eta espezializatua erabiltzen duen: gaiarekin zerikusia duten hitzak, sinonimoak, askotariko lokailuak, adierazpideak edo bestelako baliabide estilistikoak, etab.

–Morfosintaxia.

Izangaiak erabiltzen duen hizkuntza kodearen doitasun edo zehaztasuna ebaluatzen du, haren maila aintzat hartuta. Alegia:

- Ea zuzen erabiltzen dituen ortografia, morfologia eta sintaxia.
- Ea zehaztasunarekin erabiltzen duen lexikoa, kolokazioak naturalak diren, etab.

6.4. Ahozko testuak produzitzeko eta koproduzitzeko proba: ahozko adierazpena (EO).

Izangaiak gauza izan behar du bakarka eta beste norbaitekin batera sortzeko, etorri eta berezkotasunez, ia ahaleginik gabe, eta kanala edozein dela ere, mota askotako ahozko testu luze, argi eta zehatzak, kontzeptuen eta egituraren aldetik konplexuak eta zenbait erregistro erabiliz; erabiliko duen tonua eta azentua egokia izanen da esanahiaren xehetasunak adierazteko, baliabide linguistiko ugari eta estrategia diskurtsiboak, interakzionalak eta konpentsaziozkoak menderatzen direla erakutsiz, halako moldez non esan nahi dena adierazteko unean uneko zailtasunak atzemanekin baitira, eta diskurtsua egoera komunikatibo guztietara egokitzen ahal baitu.

6.4.1. Probaren formatua.

Proba bikoteka edo hironaka egingen da, bi aztertzailearen aurrean, eta grabatuko da. Izangai bakarra badago, aztertzaileetako batek bikotekidearen papera egingen du koprodukzio lanerako.

Txanda iristen denean, aztertzaile batek deituko die proba egingen den gelan sar daitezen. Ahozko bitartekotza ere saio berean egingen da, gida honen 5.1 puntuko tauletan adierazi den moduan.

	PRODUKZIOA	KOPRODUKZIOA
Zeregina	Epaimahaiak proposatutako galdera batzuei erantzutea. Galdera horiek izangaiaren iritzi pertsonalarekin, esperientziarekin eta mundu ikuskerarekin lotuko dute gaia	Modu aktiboan parte hartzea 3 izangairen arteko mahai-inguru batean. Bertan, enuntziatuak zedarritutako gaiaren hainbat alderdi eztabaidatuko dira (*ikus eredu)
Helburu komunikatiboa	Gai bat azaltzea modu sinesgarrian, ongi egituratuta eta zehaztuta, norberaren iritziak zehatz azalduz	Norberaren ideiak eta iritziak adieraztea eraginkortasunez, zehatz eta xeheki, solaskideei erantzutea etorritz, berezkotasunez eta egokitasunez, eta norberaren ideiak beste hiztunen ideiekin trebetasunez lotzea

Euskarria	DIN A4 neurriko orria infografiarekin	A4 neurriko orria, ukitu beharreko gai baten alderdi batzuekin (3 edo 4 ideia, gehienez 50 hitzetan adierazita), izangai bakoitzarentzat desberdina
Prestaketa	Prestaketarik gabe	1' (aldi berean baina banaka)
Ahozko azalpena	5'	9-12' (hirukotea)
3 izangai	15'	13'
Proba, guztira		28'

Bi eginkizunetarako prestaketa eginen da proba eginen den ikasgela berean, aztertzaileen aurrean.

6.4.2. Fase bakoitzaren deskribapena:

a) Harrera:

–Aztertzaile batek esanen die izangaiei non eseri behar diren, eta eskatuko die beren burua identifikatzeko, argazkia daukan dokumentu baten bidez.

–Aztertzaileak galdetuko die bertaratu direla justifikatzen duen agiririk behar ote duten (hasi baino lehen edo amaitzean).

b) Ahozko ekoizpena:

–Aztertzaileak ahoz emanen ditu jarraibideak, eta A izangaiari bi txartel emanen dizkio gai banarekin, izangaiak aukera dezan zein gai izanen den ahozko produkzioaren oinarria.

–Gaia aukeratutakoan, aztertzaileak infografia daukan euskarria emanen dio izangaiari eta gai horri buruzko hiru galdera eginen dizkio.

–A izangaiak, lehenik hitz egin behar duenak, ahozko adierazpena garatuko du, erantzun landuak emanaz hiru galderari.

–A izangaia gehienez 5 minutuz arituko da solasean, eta bitartean aztertzaileek eskatzen ahalko diote bere iritziak justifika ditzala edo argi gelditu ez den xehetasunen bat gara dezala.

–A izangaiak ahozko produkzioa amaitu eta gero, aztertzaileak B izangaiari beste bi txartel emanen dizkio bere ahozko produkzioa prestatzeko, eta lehengo urratsak errepikatuko dira.

c) Koprodukzioaren fasea:

–Aztertzaileak jarraibideak emanen dizkie bi izangaiei, ahoz, eta azalduko die minutu bat daukatela prestatzeko (aldi berean baina bakarka).

–Aztertzaileak euskarri bana emanen die. Euskarri hori txartel bat izanen da, eta han azalduko dira solasaldiaren nondik norakoak: gai bat eta eztabaidatzeko hiru edo lau enuntziatu. Ez dago enuntziatu guztiak eztabaidatu beharrik.

–Prestatzeko denbora amaituta, aztertzaileak adieraziko du nor hasiko den hizketan (A izangaia).

–Bi izangaiek elkarrizketa bati emanen diote hasiera, euskarrian proposatzen den gaiari buruzko iritziak trukatzeko. Izangai bakoitza saiatuko da parte hartzen zereginaren denboraren erdian. B izangaiak amaiera emanen dio elkarrizketari.

–Izangaien elkarrekintzaren faseak 6-8 minutu iraunen du eta bitartean aztertzaileek ez dute hitz eginen, egoera hauetan izan ezik: i) komunikazioa eteten bada; ii) solasa eskatutakoarekin bat ez badator edo iii) ez badira nahikoa mintzatzen.

6.4.3. Ebaluazio irizpideak.

–Eraginkortasun komunikatiboa.

Ebaluatzen du ea izangaiak eraginkortasunez erantzuten dion komunikazio egoerari eta ongi lotzen zaion zereginari. Alegia:

- Produkzio zeregina:
- Ea eraginkortasunez adierazten duen esan nahi duena. Diskurtsoaren haria jarraitzea erraza den, informazio argia ematen duen eta anbiguotasunik ez dagoen.
- Zereginari egokitzen zaion: ezarritako denborari eusten dion, puntu guztiak garatuz gidalerroen arabera, eta informazio zehatza eta eduki jakingarria eskainiz proposatutako gaiari buruz.
- Berezkotasunez eta zalantzarik egin gabe erantzuten duen. Diskurtso jarraitua egiten duen, erritmo naturalean.
- Koprodukzio zeregina:
- Ea naturaltasun, malgutasun eta eraginkortasunez parte hartzen duen interakzioan: aktiboki jarduten duen igortzaile eta hartzaile gisa, solasaldiaren nondik norakoari moldatuz, eta egokitasunez erantzuten duen, eduki jakingarria eskainiz.
- Egoki erabiltzen dituen hitz egiteko txandak (intonazioa, diskurtsoaren markatzaileak, etab.) eta baliatzen elkarlaneko estrategiak (adeitasuna, laguntza, ulertu izana erakustea, argibideak eskatzea, etab.) eta komunikazioaren norabidea aldatzekoak (gai aldaketa negoziatzea, etab.), eta bere ideiak trebetasunez lotzen dituen beste hiztunen ideiekin (adostasuna edo desadostasuna agertzea, argudiatzea, etab.).

–Kontrol fonologikoa.

Soinuen artikulazioa, azentuazioa, erritmoa eta intonazioa ebaluatzen ditu. Alegia:

- Ea ahoskera argia eta naturala den, berezko hiztunaren oso parekoa.
- Intonazioa aldatzen duen eta zuzen kokatzen duen hanpadura informazioari ñabardurak gehitzeko.
- Ahoskera argia eta naturala duen, 1. hizkuntzaren eraginik gabekoa, ez den gehiegi urruntzen estandarretik eta gauza den soinu multzoak artikulatzeko.
- Hitzei zuzen jartzen dien azentua.
- Hitzak adiera-unitateetan multzokatzen dituen eta esaldiaren erritmoari eusten dion.
- Intonazioa erabiltzen duen esanahia indartzeko / informazioari ñabardurak eransteko.

–Lexiko aberatsa.

Erabilitako hiztegiaren hedadura eta konplexutasuna ebaluatzen ditu. Alegia:

–Ea lexiko joria, askotarikoa eta zehatza erabiltzen duen zeregina burutzeko: gaiarekin zerikusia duten hitzak, sinonimoak, hain ohikoak ez diren hitzak, eta adierazpide idiomatikoak edo bestelako baliabide estilistikoak.

–Zuzentasun gramatikala.

Gramatikaren erabileraren doitasun edo zehaztasuna ebaluatzen du. Alegia:

- Ea zuzen erabiltzen dituen morfologia eta sintaxia.
- Zeregina egiteko beharrezkoak diren egiturak erabiltzen dituen.

7.–Bitartekotza proba: Bitartekotza idatzia eta ahozko bitartekotza.

Bitartekotza probak bi zeregin izanen ditu eta guztira 20 puntu balioko du. Lehenengoa, Bitartekotza idatzia, azterketa idatziaren saioan eginen da, eta bigarrena, Ahozko bitartekotza, ahozko azterketaren egunean eginen da.

7.1. Bitartekotza idatzia.

Izangaiak gauza izan behar du iturri batetik eta bestetik hartutako askotariko testu ahozkoetan (esate baterako, hedabideetako testuak, mota bateko eta besteko testu akademikoak, txostenak edo agiri profesionalak) dagoen informazioa, iritziak eta argudioak idatziz jasotzeko, berak sortutako testu koherente batean, haiek parafraseatuz edo laburtuz.

Bitartekotza proba idatziaren ezaugarriak eta formatua:

Helburua	Ahozko testu askotarikoetan dauden informazioa eta iritziak, inplizituak nahiz esplizituak, malgutasun, zuzentasun eta eraginkortasunarekin adieraztea, hartzaile berriarentzat adierazgarria den informazioa identifikatu eta hautatu ondoren. Horretarako, bitartekotza estrategiak erabiliko dira (birformulatzea, parafraseatzea, hedatzea, adibideak jartzea, alderdi kulturalak azaltzea)
Jarraibideak	2. hizkuntzan estandarizatuak (ikus eredu)
Kontsigna	2. hizkuntzan (80 hitz, gehienez), egoeraren deskribapen laburrekin
Euskarria	Hitzaldi, mintegi, aurkezpen, dokumental, erreportaje edo horrelakoren batetik ateratako audio dokumentua (jatorrizko grabazioa edo dramatizatua), 2. hizkuntzan egina, 4 minutukoa (500-600 hitz), izangaiaren intereseko gaiak edo bestelakoak ukitzen dituen, espezializatu samarrak, eta funtsean azalpen-izaera duena Behin bakarrik entzunen da
Hedadura	250-280 hitz
Denbora	35 minutu (entzuketa barne)
Puntuazioa	10

7.2. Ahozko bitartekotza.

Izangaiak gauza izan behar du hirugarrenei ahoz adierazteko, laburpen edo egokitzapen baten bidez, testu idatziaren edukien zentzu orokorra, funtsezko informazioa, puntu nagusiak, xehetasun garrantzitsuenak eta iritzi eta jarrera inplizitu zein esplizituak, alderdi abstraktukoak zein zehatzetakoak izan, orokorrak zein norberaren interesekoak edo espezialitatekoak izan, baldin eta testuak ongi antolatuta eta hizkuntzaren aldaera estandar batean sortuta badaude.

–Ahozko bitartekotza probaren ezaugarriak eta formatua:

Deialdi arruntean, ahozko bitartekotza proba banaka eginen da ahozko azterketaren saioan, ahozko testuak produzitzeko eta koproduzitzeko probaren aurretik. Deialdi berezian, ahozko bitartekotzako zereginaren eta ahozko testuak produzitzeko eta koproduzitzeko probaren hurrenkera izangaiak egiteko dituen proben mende egonen da.

Helburua	Ahoz azaltzea, behar bezain zehatz, 2. hizkuntzako herrialdearen egoera politikoari edo alderdi soziokulturei buruzko testu idatzi batzuen zentzu orokorra, funtsezko
----------	---

	informazioa, puntu nagusiak, xehetasun garrantzitsuenak, eta iritzi eta jarrera inplizituak zein esplizituak, bai eta balizko ondorioak ere
Kontsigna	2. hizkuntzan, estandarizaturaz zeregin guztietarako
Euskarria (bi gairen artean bat aukeratuta)	DIN A4 neurriko orria, jarraibideekin eta oharrek idazteko tartearekin DIN A4 neurriko orria, 2. hizkuntzan idatzitako testuarekin (guztira 700-800 hitz)
Prestaketa	20 minutuko prestaketa, beste ikasgela batean
Ahozko azalpena	5'
Puntuazioa	10 puntu

7.3. Bitartekotza ebaluatzeko irizpideak:

–Edukiaren interpretazioa.

Ebaluatzen du ea izangaiak kontsigna egokitasunez interpretatzen duen eta helburu komunikatiborako informazio adierazgarria identifikatzen eta aukeratzen duen (hartzaileari eta testuinguruari dagokiena).

–Testuaren antolaketa.

Ebaluatzen du ea izangaiak ongi prozesatzen duen testua: informazioa, ideiak edota datuak transmititzen, laburtzen, parafraseatzen, alderatzen edo azaltzen dituen, hartzaileari informazioa ulertarazteko, testua hitzez hitz errepikatu ordez.

–Informazioa transmititzea.

Mezua transmititzeko eraginkortasuna ebaluatzen du, hau da, mezuaren koherentzia eta argitasuna, bai eta sarrerako testuarekiko fideltasuna ere.

–Hizkuntzaren zuzentasuna.

Ebaluatzen du ea izangaiak, bere mailaren arabera, nahiko egoki erabiltzen duen hizkuntza kodea informazioaren transmisioan. Alegia:

- Ea ongi erabiltzen dituen hitz egokiak eta zehatzak, eta espezializatuak, hala behar denean.
- Egoki erabiltzen duen hizkuntza kodea informazioaren transmisioan.

7.4. Idatzizko bitartekotza ebaluatzeko taula (III. gehigarria).

7.5. Testu idatzien produkzioa eta koprodukzioa ebaluatzeko irizpideak.

–Eraginkortasun komunikatiboa.

Ebaluatzen du ea izangaiak eraginkortasunez erantzuten dion komunikazio egoerari eta ongi lotzen zaion zereginari. Alegia:

- Ezarritako helburu komunikatiboa betetzen duen eta eraginkortasunez adierazten duen esan beharrekoa: ezarritako eginkizunak (informatzea, eskatzea, etab.) burutzen dituen eta nahi bezalako eragina sortzen duen hartzailearengan. Zeregina betetzeko moduari buruzko inpresio orokorra positiboa den.

- Arau sozial eta diskurtsiboak errespetatzen dituen, testu motaren arabera (kontakizuna, deskribapena, argudiatzea, etab.), bai eta testu formatu egokiak ere.
- Hizkera eta erregistro egokiak erabiltzen dituen, bai eta kortesia eta adeitasunezko estrategiak ere, hala dagokionean.
- Zeregina betetzeko jarraibideei lotzen zaien: ezarritako luzerari eusten dion, puntu guztiak garatzen dituen gidalerroei jarraituz, eta proposatutako gaiari buruz informazio nahikoa eta eduki jakingarriak eskaintzen dituen.

–Koherentzia eta kohesioa.

Ebaluatzen du ea izangaia gauza den testu koherentea, ulerterraza eta kohesioduna sortzeko. Alegia:

- Informazio adierazgarria eta anbiguotasunik gabea ematen duen. Testua irakurterraza den.
- Informazioa eta argudioak ongi antolatzen dituen: ideia orokorra eta ikuspuntua ongi berezita.
- Diskurtsoaren hariari eusten dion, errepikapenak eta jauzi edo etenak saihestuz. Gai edo ikuspuntu desberdinen arteko trantsizioak baliatzen dituen.
- Ongi erabiltzen dituen paragrafoak, puntuazio zeinuak eta lokailuak. Ideiak ongi josita dauden paragrafo eta perpausen artean.
- Egokitasunez erabiltzen dituen kanpoko erreferentzia mekanismoak (espaziokoak, denborakoak) eta barnekoak (izenordainak, adberbioak, aditz denborak, komunztadura, etab.).

–Hizkuntza aberastasuna.

Izangaia erabilitako hizkuntza baliabideen hedadura eta konplexutasuna ebaluatzen ditu, maila kontuan hartuta. Alegia:

- Ea egitura sintaktiko eta gramatikal ugari erabiltzen dituen, askotarikoak eta konplexuak.
- Lexiko zabala, egokia eta espezializatua erabiltzen duen: gaiarekin zerikusia duten hitzak, sinonimoak, askotariko lokailuak, adierazpideak edo bestelako baliabide estilistikoak, etab.

–Hizkuntzaren zuzentasuna.

Izangaia erabiltzen duen hizkuntza kodearen doitasun edo zehaztasuna ebaluatzen du, haren maila aintzat hartuta. Alegia:

- Ea zuzen erabiltzen dituen ortografia, morfologia eta sintaxia.
- Ea zehaztasunarekin erabiltzen duen lexikoa, kolokazioak naturalak diren, etab.
- Zuzentasun eta naturaltasunarekin ahoskatzen duen, berezko hitun baten paretsu. (Ahozko bitartekotza).

8.–Azkeneko oharra.

8.1. Emaitzen argitalpena.

1. Proben emaitzak argitara emanen dira datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoa betez.

2. Ikasleei ziurtapen proben emaitzari buruz emanen zaien informazioak barnean hartuko ditu probaren zati bakoitzeko puntuazioa eta dagokion kalifikazio partziala, bai eta proba osoari dagokion kalifikazio orokorra ere.

8.2. Erreklamazioak egiteko eskubidea.

1. Ikasleek, edo, hala behar denean, haien tutore edo legezko ordezkariak, beren probei eta emaitzei buruzko informazioa jasotzen ahalko dute ebaluazioaren ardura duten irakasleen aldetik, ikastetxean

horretarako ezarritako egunean. Egun horretan bertaraterik ez badute, beste egun batean egiteko eskatzen ahalko dute idatziz.

2. Irakasleak argibideak eman ondoren, lortutako azken kalifikazioarekin ados ez badaude, ikasleek, edo, hala behar denean, haien tutore edo legezko ordezkariak, ikastetxeko zuzendaritzari eskatzen ahalko diote, idatziz, berrius dezala ziurtapen probaren zati batean edo batzuetan lortutako kalifikazioa. Lortutako kalifikazioak berrikusteko eskaera horiek hiru egun balioduneko epean aurkeztuko dira, amaierako kalifikazioa argitaratzen den egunetik hasita. (Hots, azterketaren berrikuspenaren egunetik hasita).

3. Erreklamazioa jaso ondoren, ikastetxeko zuzendariak erreklamazio espediente bat irekiko du. Kasuan kasuko hizkuntzaren departamentuak (erreklamazioa jarri zaien irakasleak bazter utzita), zuzendariak eskaturik eta erreklamazioa aurkeztu ondoko lehenengo egun baliodunean, erreklamazioa aztertuko du. Egiaztatuko du proba guztiak ebaluatu direla eta ezarritako ebaluazio irizpideak ongi aplikatu direla, eta ziurtatuko du ez dela akatsik egin probaren zati bakoitzeko kalifikazioaren eta amaierako kalifikazioaren kalkuluan, eta txostena egingen du. Txostenak ikasketaburuari helaraziko zaizkio, eta hark, lehenbailehen, txostenaren kopia emanen dio ikasleari edo, hala behar denean, ikaslearen tutore edo legezko ordezkariari, PDF formatuko kopia bat igorri haren helbide elektronikora. Gainera, mezua bidaliko zaio mugikorrera, jarri duen erreklamazioaren erantzuna bidali diotela jakinarazteko. Honela bukaera emanen zaio ikastetxean erreklamatzeko prozesuari.

4. Ikastetxearen ebazpenaren kontra gora jotzeko errekurtoa paratzen ahalko da, Hezkuntzako zuzendari nagusiari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabete epean.

5. Artikulu honetan aurreikusitako jarduketa guztiak desgaitasunen bat duten pertsonentzat irisgarriak izatea bermatuko da.

8.3. Premia bereziak dituzten pertsonentzako egokitzapena.

Proba egokitzen ahalko da mugitzeko desgaitasuna, ikusteko desgaitasun erabatekoa edo partziala, mintzamenaren nahasmenduak, entzumen galera edo desgaitasun bat baino gehiago duten izangaien behar berezietarako.

Egokitzeren bat behar duten ikasleek beren beharrak adierazi beharko dituzte ikasketaburuari zuzendutako idazki batean, eta desgaitasuna eta haren gradua egiaztatzen dituen ziurtagiria aurkeztuko dute behar horiek justifikatzeko. Eskaerak matrikula egiterakoan edo probaren eguna baino gutxienez hilabete lehenago aurkeztuko dira.

Baldintzak egokitzeak ez du inoiz ekarriko probaren zatiren bat egin behar ez izatea edo proba deialdi ofizialekoa ez beste egun batean egin ahal izatea.

8.4. Bertaratze agiriak.

Izangaiek azterketa egin izana frogatzeko agiria eska dezakete.

8.5. Elkarbizitzaren aurkako portaerak.

Azterketa, proba edo ariketa batean beste ikasle batzuei kopiatzea edo kopiatzen uztea elkarbizitzaren aurkako portaera da, eta berekin ekarriko du, abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuaren arabera, azterketa, proba edo ariketa horretan kalifikazio negatiboa jasotzea.

9.–Aholkuak.

–Bete itzazu uneoro azterketaren administratzaileen jarraibideak.

–Zereginak egiteko duzun denbora egoki banatu. Denbora horiek probaren atal guztiak egiteko aski dira, aurretik kalkulatu baitira. Gomendagarria da azkenean minutu batzuk gordetzea azterketa errepasatu eta izan litezkeen akatsak zuzentzeko.

–Probaren atal guztietan garbi idatzi eta azterketa txukun aurkeztu. Zuzentzat hartu dituzun erantzunak zeintzuk diren garbi gelditu dela ziurtatu.

–Probaren zati eta zeregin bakoitzerako ematen diren jarraibideak arretaz irakurri.

–Lasai egon zaitetz eta proba egiteko jarraibideei arretaz erreparatu, batez ere ahozko ulermenaren ariketan.

–Idatzizko ariketako zereginei heldu baino lehen, gomendagarria da esan nahi duzunaren eskema bat egitea aurretik eta, ariketa bukatutakoan, dena erreparaszea.

- Antes de desarrollar las tareas incluidas en la parte de expresión escrita, es recomendable hacer un esquema previo de lo que se piensa decir y un repaso final de las tareas realizadas.

I. GEHIGARRIA - Testu idatzien produkzioa eta koprodukzioa ebaluatzeko taula

PRODUKZIO IDATZIA		C2	KOPRODUKZIO IDATZIA	
ERAGINKORTASUN KOMUNIKATIBOA				
2,5	o Erabat lotzen zaie testu motaren konbentzioei o Informazio nahikoa, erabat adierazgarria eta ongi argudiatua ematen du			2,5
2	Goragoko eta behegoko tartetako ezaugarriak partekatzen ditu			2
1,5	o Oro har testu motaren konbentzioei lotzen zaie, nahiz eta akatsen bat egin formatuan, erregistroan edo informazioaren banaketa tipikoan. o Informazio nahikoa ematen du, eta adierazgarria gehienbat			1,5
1	Goragoko eta behegoko tartetako ezaugarriak partekatzen ditu			1
0,5	o Akats nabarmenak egiten ditu testu motaren konbentzioetan o Informazio gutxi edo informazio hutsala ematen du, baliteke zeregina gaizki ulertu izana			0,5
KOHERENTZIA ETA KOHESIOA				
2,5	o Diskurtso ildo argia erakusten du, testuari batasun nabarmena emanez o Eraginkortasunez erabiltzen ditu askotariko lokailuak, kohesiorako mekanismoak eta antolaketa egiturak, hala paragrafoaren barnekoak nola testu atalen artekoak o Erabat lotzen zaie testu motaren konbentzioei			2,5
2	Goragoko eta behegoko tartetako ezaugarriak partekatzen ditu			2
1,5	o Diskurtsoaren haria erraz atzematen da, inkoherentziaren bat gorabehera o Informazioa ongi antolatzen du, kohesiorako mekanismoak egokitasunez erabiliz, nahiz eta tarteka zehaztugabetasunen bat agertu o Badago akatsen bat testu motaren konbentzioetan, izan formatuko akatsak, erregistrokoak nahiz informazioaren banaketakoak			1,5
1	Goragoko eta behegoko tartetako ezaugarriak partekatzen ditu			1
0,5	o Diskurtsoaren haria koherentzia edo argitasun urrikoa da o Kohesiorako mekanismo oso sinpleen bidez antolatzen du testua, edo ez ditu egokiro erabiltzen kohesiorako mekanismoak o Nabarmen urruntzen da testu motaren konbentzioetatik			0,5
LEXIKOA				
2,5	o Hizkuntza errepertorio zabal eta zehatza erabiltzen du, eraginkortasunez, zuzentasun handiz, zehaztasunez eta doitasunez jardutea ahalbidetzen diona o Zehaztugabetasunak oso bakanak dira, eta ez diote eragiten komunikazioari			2,5
2	Goragoko eta behegoko tartetako ezaugarriak partekatzen ditu			2
1,5	o Egokitasunez erabiltzen du eguneroko hitzen eta ez hain ohikoen sorta bat, zehaztasunez jarduteko; zehaztugabetasunen batzuk egiten ditu, baina ez diote eragiten komunikazioari			1,5
1	Goragoko eta behegoko tartetako ezaugarriak partekatzen ditu			1
0,5	o Eguneroko halako hitz sorta bat erabiltzen du egokitasunez, baina ez du zehaztasunik, edo komunikazioa oztopatzen duten zehaztugabetasunak eta errepikapenak egiten ditu			0,5
MORFOSINTAXIA				
2,5	o Zuzen erabiltzen ditu zeregina burutzeko beharrezkoak diren egiturak, bai konplexuak bai oinarrikoak			2,5
2	Goragoko eta behegoko tartetako ezaugarriak partekatzen ditu			2
1,5	o Nahiko zuzen erabiltzen ditu egitura oinarrikoak eta egitura konplexuren bat; akatsek ez dute komunikazioa galarazten			1,5
1	Goragoko eta behegoko tartetako ezaugarriak partekatzen ditu			1
0,5	o Zuzen erabiltzen ditu hizkuntzaren oinarriko egiturak, baina egitura konplexuagoetan akats nabarmenak egiten ditu, esanahia antzeman badaiteke ere			0,5
0	Ez du betetzen zereginaren helburu komunikatiboa. Apenas ematen duen informaziorik, edo edukia erabat hutsala da.			0
	GUZTIRA	PRODUKZIO ETA KOPRODUKZIO IDATZIA, GUZTIRA — / 20		GUZTIRA

II. GEHIGARRIA - Ahozko testuen produkzioa eta koprodukzioa ebaluatzeko taula

AHOZKO PRODUKZIOA		C2	AHOZKO KOPRODUKZIOA
ERAGINKORTASUN KOMUNIKATIBOA			
2,5	o Berezkotasunez erantzuten du, ia zalantzarik egin gabe, diskurtso jarraituarekin eta erritmo naturalean. o Galderei erantzutean informazio adierazgarria, landua eta koherentea ematen du.	o Modu aktiboan parte hartzen du elkarrizketan, ideia azpimarragarriekin. o Bere ikuspuntuak defendatzen ditu eta solaskidearen ekarpenak kontuan hartzen ditu eztabaidan parte hartzerakoan. o Ongi erabiltzen ditu elkarrekintzarako estrategiak: pentsatzeko denbora irabazteko baliabideak, interesa agertzea, argibideak eskatzea, ulertu duela erakustea. o Haren solasaldiak landuak dira, etorri eta berezkotasunarekin hitz egiten du.	2,5
2	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu		2
1,5	o Aski berezkotasunarekin erantzuten du, nahiz eta zalantza bat izan, eta diskurtso jarraitua egiten du, nahiz eta erritmoa ez den naturala. o Galderei erantzutean informazio adierazgarria eta koherentea ematen du, baina ez oso landua.	o Ideia azpimarragarriekin parte hartzen du elkarrizketan. o Bere ikuspuntuak defendatzen ditu eta solaskidearen ekarpenak kontuan hartzen ditu, nahiz eta nolabaiteko laguntza behar duen eztabaidan parte hartzerakoan. o Ongi erabiltzen ditu elkarrekintzarako estrategiak: pentsatzeko denbora irabazteko baliabideak, interesa agertzea, argibideak eskatzea, ulertu duela erakustea. o Aski berezkotasun eta etorriarekin aritzen da, zalantza bat izan badezake ere.	1,5
1	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu		1
0,5	o Denbora behar du erantzuteko, edo kosta egiten zaio esaldi landuak sortzea eta ez du jariorik. o Informazioa ematen du, baina ez da beti adierazgarria edo argia.	o Behin eta berriz solaskidearen jardunean oinarritzen da elkarrizketan parte hartzeko. o Mugaturik erabiltzen ditu elkarrekintzarako estrategiak: pentsatzeko denbora irabazteko baliabideak, interesa agertzea, argibideak eskatzea, ulertu duela erakustea. o Ez ditu gehiegi lantzen bere ekarpenak edo ikuspuntuak. o Haren zalantzek elkarrizketa oztokatzen dute.	0,5
LEXIKO ABERATSA			
2,5	o Hiztegi zabala erakusten du, bide ematen diona bere ikuspuntua zehaztasunez azaltzeko, itzulgingururik gabe.	o Erakusten du ongi kontrolatzen dituela hiztegi orokorra eta adierazpide idiomatikoak eta lagunartekoak. o Egoki erabiltzen ditu jarrera azaltzen duten adierazpideak, lelo, betegarri eta abarrekoak, bere ikuspuntua zehaztasunez eta itzulgingururik gabe adierazi ahal izateko.	2,5
2	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu		2
1,5	o Erakusten du badakiela halako hitz sorta bat, bere ikuspuntua nahiko zehatz azaltzea ahalbidetzen diona, nahiz eta zaila gerta dakioken zenbait ideia konplexu adieraztea.	o Erakusten du ongi kontrolatzen dituela hiztegi orokorra eta adierazpide idiomatiko eta lagunarteko batzuk. o Egoki erabiltzen ditu jarrera azaltzen duten adierazpideak, lelo, betegarri eta abarrekoak, bere ikuspuntua zehaztasunez adierazi ahal izateko, nahiz zaila gerta dakioken zenbait ideia adieraztea.	1,5
1	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu		1
0,5	Hiztegi mugatua erabiltzen du, mezua transmititzeko aski ez dena, edo zehaztugabetasun lexikoak eta beste hizkuntza batzuen interferentziak ditu, komunikazioa zailtzen dutenak. o Mezua sinplifikatu beharra dauka baliabide lexikorik ezaren ondorioz.		0,5
CONTROL FONOLÓGICO			
2,5	o Soinuak eta hitzak argi eta naturaltasunez ahoskatzen ditu. o Intonazioa aldatzen duen eta zuzen kokatzen duen hanpadura informazioari ñabardurak gehitzeko.		2,5
2	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu		2
1,5	o Soinu guztiak nahiko ongi ahoskatzen ditu eta akatsak egiten dituen bere burua zuzentzen du, nahiz eta hitzen bat edo beste gaizki ahoskatu. o Intonazioa alda dezake eta zuzen kokatu hanpadura informazioari ñabardurak gehitzeko. Zenbaitetan ez du azentuazioa edo intonazioa zuzen egiten, baina horrek ez dio eragiten diskurtsoaren ulergarritasunari.		1,5
1	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu		1
0,5	o Akats sistematikoak egiten ditu soinuak edo hitzak ahoskatzean. o Azentuazioan eta intonazioan 1. hizkuntzaren edo beste hizkuntza batzuen eragina nabari zaio.		0,5
CORRECCIÓN GRAMATICAL			
2,5	o Naturaltasunez eta zuzentasun handiz erabiltzen ditu helburu komunikatiborako egitura egokiak.		2,5
2	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu		2
1,5	o Kontrol gramatikal ona erakusten du, nahiz eta tarteka akatsak egiten dituen edo egiturak hautatzean naturaltasuna falta zaion.		1,5
1	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu		1
0,5	o Egitura zuzenak baina oinarri-oinarrizkoak erabiltzen ditu, edo akatsek produkzioaren kalitatea kaskartzen dute.		0,5
	GUZTIRA	PRODUKZIO ETA KOPRODUKZIO IDATZIA, GUZTIRA — / 20	GUZTIRA

III. GEHIGARRIA - Idatzizko eta ahozko bitartekotza ebaluatzeko taula

AHOZKO BITARTEKOTZA		C2	BITARTEKOTZA IDATZIA	
EDUKIAREN INTERPRETAZIOA				
2,5	o Sarrerako testuaren informazioa eta argudio adierazgarriak identifikatzen eta hautatzen ditu eta berak sortutako testu argi eta ongi egituratuan txertatzen ditu.			2,5
2	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu			2
1,5	o Helburu komunikatiborako garrantzi gehien duen informazioa identifikatzen eta hautatzen du.			1,5
1	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu			1
0,5	o Hautatzen duen informazioa ez da beti adierazgarria helburu komunikatiborako.			0,5
TESTUAREN ANTOLAKETA				
2,5	o Informazioa modu koherentean antolatzen eta birformulatzen edo azaltzen du, mezua argitzeko edo hartzailearentzat ulergarriago egiteko. Eraginkortasunez erabiltzen ditu bitartekotza-estrategiak			2,5
2	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu			2
1,5	o Informazioa antolatzen eta birformulatzen du bitartekotza-estrategiaren bat erabiliz, mezua hartzaileari argitzeko edo ulergarriago egiteko, baina sarrerako testuaren egiturari eta letrari jarraitzen die eta informazioa erredundantea da.			1,5
1	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu.			1
0,5	o Ez du bitartekotza-estrategiarik erabiltzen mezua hartzaileari argitzeko edo ulergarriago egiteko, hitzez hitz errepikatzen ditu sarrerako testuaren zatiak, helburu komunikatiborako garrantzirik gabekoak izan arren, eta informazioa erredundantea da.			0,5
INFORMAZIOAREN TRANSMISIOA				
2,5	o Informazioa argi eta zehatz transmititzen du, haren alderdiak baloratzen ditu eta puntu garrantzitsuenak nabarmentzen ditu.			2,5
2	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu			2
1,5	o Informazioa nahiko argi transmititzen du, baina xehetasun handirik gabe, eta azaletik baloratzen ditu alderdiak.			1,5
1	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu			1
0,5	o Zailtasunak ditu informazioa nahiko argi eta zehatz transmititzeko eta ez ditu alderdiak baloratzen, ezta puntu garrantzitsuenak nabarmentzen ere.			0,5
HIZKUNTZAREN ZUZENTASUNA				
2,5	o Hiztegi espezifiko erabiltzen du informazioa zehaztasunez transmititzeko. o Ahoskera eta doinu naturalak ditu, eta informazio adierazgarrienak nabarmentzen ditu. o Kontrol gramatikal ona erakusten du.	o Errepertorio lexiko zabala erabiltzen du eta hura zehaztasunez erabiltzeko bezain ongi ezagutzen du. o Gramatika ongi dakiela erakusten du. o Akatsak oso noizbehinka egiten ditu.		2,5
2	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu			2
1,5	o Aski hitz erabiltzen du informazioa transmititzeko, nahiz eta ez den gauza beti hitz egokia aurkitzeko. o Ahoskera eta doinu egokiak ditu, nahiz eta 1. hizkuntzaren halako eragin bat igartzen zaion. o Kontrol gramatikal ona erakusten du, nahiz eta tarteka oinarrizko akatsak egin.	o Errepertorio lexiko zabala zuzen erabiltzen du, zehaztugabetasun edo errepikapenen bat gorabehera. o Kontrol gramatikal ona erakusten du, nahiz eta 1. hizkuntzaren halako eragin bat igartzen zaion. o Akatsak egiten ditu, baina ez dute komunikazioa eragozten.		1,5
1	Goragoko eta beheragoko tarteetako ezaugarriak partekatzen ditu			1
0,5	Informazioa transmititzeko hitzak falta zaizkio. o Ahoskeran 1. hizkuntzaren eragin nabarmena du. o Kontrol gramatikal urria erakusten du.	o Hiztegi eta egitura oinarrizkoak erabiltzen ditu o Akatsak etengabe egiten ditu, eta ondorioz testua irakurtzea zaila da.		0,5
0	Ez du betetzen zereginaren helburu komunikatiboa. Apenas ematen duen informaziorik, edo edukia erabat hutsala da.			0
	GUZTIRA	AHOZKO ETA IDATZIZKO BITARTEKOTZA, GUZTIRA — / 20	GUZTIRA	